

BAGDADEKO MORROIA

Bazen behin, Bagdadeko hirian, merkatari aberats baten zerbitzuan lan egiten zuen morroi bat. Egun batez, goizaldetik, morroia Bagdadeko azokara abiatu zen erosketak egitera. Baina goiz hura ez zen besteak bezalakoa izan. Goiz hartan morroiak Heriotza ikusi baitzuen azokan. Eta Heriotzak keinu bat egin baitzion morroiari.

Izututa, morroia merkatariaren etxera itzuli zen.

—Nagusia —esan zion—. Utzidazu etxeko zaldirik hoberena. Gaur gauerako Bagdad honetatik urruti egon nahi nuke; gaur gauerako Ispahango hiri apartatu hartan egon nahi nuke.

—Baina, zergatik egin nahi duzu ihes? —galdetu zion merkatariak.

—Azokan Heriotza ikusi dudalako, eta mehatxuzko keinu bat egin didalako orduan.

Merkataria hunkitu egin zen eta zaldia utzi zion. Eta morroia abiatu egin zen gauean Ispahanen egongo zelako esperantzetan.

Egun hartako arratsaldean, merkatariak berak ere azokarako bidea hartu zuen. Eta goizean morroiak bezala, berak ere Heriotza ikusi zuen han.

—Heriotza —esan zion berarengana inguratuz—, zergatik egin diozu mehatxuzko keinu bat nire morroiari?

—Mehatxuzko keinu bat? —erantzun zion Heriotzak—. Ez, ez da mehatxuzko keinu bat izan, baizik eta harridurazkoa. Harritu egin naiz hura hemen ikustez, hain urruti Ispahandik; zeren gaur gauean Ispahanen hartu behar baitut zure morroi hori...

BERNARDO ATXAGA, *Obabakoak* (moldatua)

1.- Markatu egia diren ideiak.

Morroiak Heriotza aurkitu zuen merkatuan eta, Heriotzak mehatxu-keinua egin zion.

Nagusiak zaldi onena utzi zion morroiari, Heriotzarengandik urruntzeko.

Nagusiak bere morroia ez hiltzeko erregutu zion Heriotzari.

Morroiak Heriotza saihestea lortu zuen.

Heriotzak ez zion mehatxuzko keinurik egin, harridurazkoa baizik.

2.- Non gertatzen da istorioa?

Bagdadeko hirian

Ispahanen

Rabaten

3.- Nor ikusi zuen goizean morroiak azokan?

Bere nagusia, merkataria.
Merkatariaren zaldi onena.
Heriotza.

4.- Zer sentitu zuen morroiak Heriotza ikustean?

Beldurra
Ilusioa
Harridura

5.- Zer egin zuen morroiak etxera itzultzean?

Merkatariaren zaldia lapurtu.
Merkatariari bere zaldia eskatu.
Merkatariari Bagdadera joan behar zuela esan.

6.- Zergatik egin zion keinu Heriotzak morroiari?

Ezagutzen zuelako.
Harrituta zegoelako.
Aspertuta zegoelako.

7.- Non hartu behar zuen Heriotzak morroia?

Bagdaden
Marokon
Ispahanen

8.- Zertara joan zen nagusia azokara?

Beste zaldi bat erostera.
Heriotza ikustera.
Ez du esaten.

9.- Ordenatu istorioa.

Morroiak Heriotza ikusten du eta keinu egiten dio.
Morroiak zaldia eskatzen dio nagusiari.
Morroia Bagdadeko azokara doa erosketak egitera.
Morroia izutzen da eta merkatariaren etxera itzultzen da.
Morroia gauean Ispahanera joaten da.
Merkataria azokara joaten da arratsaldean.
Merkatariak Heriotza ikusten du.
Heriotzak merkatariari esaten dio morroia gauean Ispahanen hartuko duela.

10.- Asmatu bukaera.